



AYUNTAMIENTO
VALLE DE TRÁPAGA-TRAPAGARAN

UDALA



Enplegu eta herriaren garapenerako agentzia
Agencia de empleo y desarrollo local

TRAPAGARANGO 2. INDABA-EGUNA

2019ko **apirilaren 6an, larunbatean**, Trapagarango 2. INDABA-EGUNA ospatuko da LEHIAKETA batekin, zeinean parte har dezaketen bai herriko ostalariak, bai Trapagarango jendeak, banaka zein kuadrillan. Jaialdi hau musikarekin eta kale-animazioarekin girotuko da.

OINARRIAK:

Trueba zentroak banatuko duen **“Enkarterriko karilla”** motako indaba da erabiliko dena, eskualde honetako indaba baita.

Antolatzaileek mota horretako indaba kilo bana emango die doan izena ematen duten lehenengo 30ei. Dena den, Trueba Zentroaren kontaktua emango da gehiago erosi nahi badute ere, eta gainerako parte-hartzaileak ere hornitu daitezzen.

IZEN EMATEA

Lehiaketa honetan parte hartu nahi dutenek **Trapagarango udalaren webgunean (www.trapagarango.net) dagoen formulario baten bidez emango dute izena otsailaren 25eko 9:00etatik martxoaren 8ko 9:00ak arte**. Izen-emate aldia amaitu ondoren, lehiaketa honetako beste kontu batzuk zehaztuko dira parte-hartzaileekin (indaba mota hau prestatzeko gomendioak banatzea, herriko zein lekutan kokatu daitezkeen...)

Adin nagusiko edonork eman dezake izena. Parte hartzaile bakoitzak inskripzio bat baino ezin du egin eta kazola/lapiko bakarra aurkeztuko du lehiaketara.

- **HASIERA**

Goizeko 9:30ean hasiko da

Lehiaketan parte hartuko dutenek 9:00etan aurkeztu beharko dira erabiliko duten kazola/lapikoarekin, antolatzaileen oniritzia jasotzeko.*



CARNICERÍA DANI

COCINADOS NARDO Y MARI JOSE

CARNICERÍA MARITXU

CHARCUTERÍA TXILI

CARNICERÍA HNOS. ZURBANO

CARNICERÍA URKIJO

CARNICERÍA JOSEMI



• EPAMAHAI

Karilla indaban adituak diren profesional espezialistaz osatua egongo da Epaimahaia, denak direlarik Trueba Zentroko kide. Haien epaia apelaezina izango da.

Epaimahi honek 13.00etatik 15:00etara aurkezten diren kazola/lapiko guztiak baloratuko ditu, kontuan hartuta aurkezpena, zaporea eta egosketa-puntua.

• SARIAK

- 1.a) Trenbideetako lapiko handi bat, txapela eta herriko dendetan erosteko 300 euroko txartel bat.
- 2.a) Trenbideetako lapiko txiki bat eta herriko dendetan erosteko 200 euroko txartel bat.
- 3.a) Plaka oroigarri bat eta Baturikeko establezimenduetan erosteko 100 euroko txartel bat, Trapagarango Merkatari eta Ostalarien Elkartek emana.
- 4.etik 10.era) Ardo-botila, Bersatxoa edarien komertzialak emana, 1 kg karilla indaba eta sakramentuak, honako harategiek emanak: Dani, Zurbano anaiak, Maritxu, Urkijo, Josemi, Nardo eta Mari Jose plater kozinatuak eta Txili urdaitegiak.

Sari banaketa egun berean egingo da, antolatzaileek aurretiaz jakinaraziko duten toki eta orduan.

Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.

OHARRA: Lehiaketatik at ere edonork prestatu ditzake indabak. Kasu horretan edozein indabamota erabil dezake, eta beharrezkoa ez bada ere webguneko formularioan izena ematea, apirilaren 6an, goizeko 10:00etan, aurkeztu beharko da antolatzaileen esan diezaioten non jarri.



CARNICERÍA DANI

COCINADOS NARDO Y MARI JOSE

CARNICERÍA MARITXU

CHARCUTERÍA TXILI

CARNICERÍA HNOS. ZURBANO

CARNICERÍA URKIJOS

CARNICERÍA JOSEMI